

# Noaua !!



Kultur ekitaldi ederrak  
Jexux Artzeren omenez



Alternatibak badirela  
berretsi dute gizarte eragileek

# Candido Besa

Arabar Errioxako  
Urteko ardoa



**ERRAUSKETARIK EZ  
LURRA BASERRIA HERRIA  
BIZIRIK**

**alkartasuna** Elkartea  
Baserritar Kooperatiha  
alkartasuna@usurbil.com  
Ugarte Industrialdea 17  
© 943 361 114

## LOURDES LARRABAGA METODICA BENTONIA

- Egutirik gabe sartzen da (7/11)
- Solartam Berrua (10.000) 36€
- FOTO-BEPILAZISA  
Baserria eta Errioxako lurra
- Baserria 1.000€ (1.100€)
- Baserria 2.000€ (2.200€)
- Baserria 3.000€ (3.300€)
- Baserria 4.000€ (4.400€)

Iratsu kalea, 12-betza  
☎ 943-362 887

➤ [www.noaua.com](http://www.noaua.com) ◀  
usurbildarron zerbitzura

**Albisteak iruditan !!**

# Artzabal baserria, barrenak hustuta

**I**txura zeharo ezberdina dute Artzabal baserriari ateratako bi argazkiek. Une honetan, monumentu izendapena duen eraikina eraberritzeko lanek aurrera jarraitzen dute. Duela lau urte zuhaitzek inguratzen zuten; egun, burdin sare batek.

Okerrik ez bada, 2008ko apirilean amaituko dira zahar etxean bilakatzeko egiten ari diren lanak.



Artzabal baserria, 2003 urtean.



Artzabal, aste honetan.

## Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
 943 36 03 21 - [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com) - [www.noaua.com](http://www.noaua.com)

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com)

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com)

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com)

Publizitatea: Intza Salsamendi, [publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com)

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.  
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**IKA MIKA** ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZeko ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## Aurkibidea

- ASKE UTZI ZUTEN ENDIKA ZINKUNEGI **5. OR.**
- KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**
- HONDAKINEN KONTSORTZIOA, EZBAIAN **8. OR.**
- JEXUX ARTZE KULTUR ELKARTEA **10. OR.**
- MIHILUZE GEHIAGO USURBILEN **12. OR.**
- TXOTXONGILO SAIO IKUSGARRIA **13. OR.**
- BI MENDI IBILALDI BEGIBISTAN **14. OR.**



Usurbilgo Udaia



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA  
 GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IDOIA TORREGARAI

## Heriotza

Gure gizarteak gaztetasuna maila goreneko balio bezala jarri du. Gaztetasuna edertasunarekin, bizitzarekin, ondo pasatzearekin eta antzeko adjektiboekin lotzen da. Aldiz, zahartzaroak esanahi negatiboak hartzen ditu: itsusitasuna, antzutasuna, heriotza,... Badirudi gaur egun denok amaiezineko gaztetasun izoztutan geratu nahi dugula betirako. Baina hau paradoxa, gero eta zaharagoa da gizartea.

Egun heriotza bizitzaren ziklotik kanpo geratzen den zerbait bezala ikusten dela iruditzen zait. Beno, ikusi ere egin nahi ez den zerbait da. Gazte eta helduen artean ez da heriotzaz normaltasunez hitz egiten. Ezkutatu egiten den zerbait da. Filmetako heriotzak eta erailketek ez dute eragin berezirik gudan; eta egunero-egunero munduan zehar piztuta dauden hainbat gudetako gorpuak ere ikus-

tera ohituta gaudela esan dezakegu. Baina gure bizitzan zuzenean eragiten duen horretaz, horretaz ez dugu ezer jakin nahi. Horretaz ez dugu hitz egiten.

Duela gutxi lankide baten aitaren elizkizunean egon nintzen. Elizatik ateratzerakoan han geunden langileak heriotzak sortarazten dizkigun sentimenduez hitz egiten aritu ginen. Lehenbiziko aldiz. Tabua izango balitz bezala, hitzak ahoskatzea kostatu egiten zitzaigun, eta zer esanik ez dagoeneko hilda dauden senideez edo hil daitezkeenez zerbait esatea. Ez gaude prestatuta horretarako.

Gure aitona-amonek beste harreman bat zuten heriotzarekin: bizitza zikloaren beste atal bat zen beraiantzat eta ez zuten ezkututzen. Hezkuntzaren zati bat zen heriotza, jaiotza den bezalaxe. Guk ere berdina egiten hasi beharko ginatekeela uste dut.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idóia Torregarai - Jose Piñas - Unai Agirre

## Ika-mika !!

### Autobus geltokia gero eta urrutiago kaxkotik

Kale Nagusiko trafikoa Orio aldeko zentzukoa bakarrik izan zedin obrak hasi zirenetik, San Inazio inguruko biribilgune ondora eramane zuten ordurarte kale horretan zegoen Donostialdeko zentzuko autobus geltokia, etorkizunerako leku hobea bilatuko ziotela esanda. Gaur egun berriz, kaxkoaren ingurubidean, hain zuzen Santueneko bideko zubi azpian, beste geltoki bat jartzen ari dira. Aurrerantzean Donostiara joateko, kaxkokoan bi geltoki horiek edukiko omen ditugula ere entzun dugu, baina hori sinestea oso zaila egiten zaigu, Diputazio eta Eusko Trenekoen ustez denbora gehiegi galtzen baita gaur egungo geltokiarekin. Beldur gara Donostiako joan-etorria egiteko ez ote dugun derrigorrean zubi azpira joan behar izango.

Garraio publikoari dagokionez, gero eta arrazoi gehiago ditugu zerbitzu eroso eta

on bat exijitzeko: ingurugiroari garraio indibidualarekin egiten diogun kalteaz aspaldi ohartu ginen, errepideak gero eta beteagoak daude, Kyotoko protokoloak CO2 isurkinak murriztea agintzen du... guzti horrek mugikortasun motorizatua murriztu behar dela adierazten digu.

Halaber, garraio publikoko zerbitzu ona izateak duen garrantzia gero eta ageriagoan azaltzen zaigunean eta gero eta gehiagotan aldarrikatzen denean, are eta ulerkaiztagoa egingo litzazuke horrelako erabaki bat hartzea. Garraio publikoa jendeari eskaini behar zaion zerbitzua den heinean jendearen beharretara egokitu behar baita edo jendearen premia ase behar baitu, eta ez alderantziz, jendeak ez luke zubi azpiraino joan behar autobusa hartzera, horrela denbora gutxiagoan iristen delako Donostiara.

Herritarroi, eta batez ere adinekoei eta haur edo elbarrien aulkiekin doazenei, gel-

toki horretarainoko joan-etorria zeharo deserosoa suertatzen zaigu, aldapa, zubia, eskailera... Bestalde, begibistakoa da aterpe bat jarrita ere geltokia izugarrizko trafikoa duen errepidearen ondoan egongo litzatekeela, horrek dituen arrisku eta eragozpenekin. Beraz, honelako erabakiak sinesgaitzak eta onartezinak dira.

Geltoki berri horren obrak egiten ari direla ikusita, Udalarri eskatzen diogu herritarren aurrean argi azaldu dezala zein den lan horien helburua. Kaxkoko Donostialdeko geltoki bakarra egitea bada, lan horiek bertan behera uztea eta geltokia kaxkora ahalik eta gehien inguratzea exijitu dezan eskatzen diogu, Diputazioaren eta EuskoTrenen presio eta interesei aurre eginez eta herritarren eta ingurugiroaren beharretara jarri.

Usurbilgo Herri Lan, UHL

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: apirilak 20. Idatzia ekartzeko azken eguna: apirilak 16.

## Endika Zinkunegi, aske baina "lur jota"

**E**Tarekin lotura zuelakoan atxilotu zuen Guardia Zibilak martxoaren 28an. Apirilaren 2an, bost egunez inkomunikazioan egon eta gero, dardarka eta herrenka atera zen Endika Zinkunegi Espainiako Auzitegi Nazionaletik. Hamabostero auzitegi sinatzeko baldintzarekin utzi zuten aske.

ETBk jasotako irudiak herritar askoren kezka eragin zuen. "Bost egun hauek nire bizitzako okerrenak izan dira". Hala azaldu zuen Endika Zinkunegik. Madrilerako joandako lagunek "lur jota" ikusi zuten. Fisikoki eta psikologikoki egun gogorak pasa zituen seinale. Honen harira, Torturaren Aurkako Taldeak (TAT) prentsurrekoa eskaini zuen apirilaren 3an Donostian. Azken polizia operazioan atxilotutako zenbait lagun senitartekoekin batera eman zuen

prentsurrekoa, haien artean ziren Endika Zinkunegiren gurasoak. Nekane Txapartegi TATEko kideak, torturen aurrean erabat isilik egotea leporatu zien eragile politiko eta soziali: "beren isiltasunarekin tortura ahalbideratzen dute, eta ez da izango ez dakitelako". Aske utzi eta gero ere, Endika Zinkunegik lur jota jarraitzen zuela esan zuen TATEko kideak.

Azkenik, torturekin amaitzeko inkomunikazioa bukatu behar dela esan zuen, eta Espainiako Auzitegi Nazionalak Euskal Herrian egiten duen "auzitegi gerra" bukatzea eskatu zuen.

### Egunero elkarretaratzeak

Atxilotu zuten egunaz geroztik, elkarretaratzeak egin ziren frontoiaren atzean. Endika Zinkunegi aske utzi zuten egunean ongi etorria prest zegoen, baina Zinkunegiren egoera fisikoa eta animikoa txarra zenez,



ATXILOTU ZUTENETIK, EGUNERO EGON DIRA ELKARRETARATZEAK HERRIAN.

beste baterako uztea erabaki zen.

### Arabako Ikastolen babes

Endika Zinkunegi Oion herriko San Bizente ikastolako irakaslea da. Hurrekin zegoen atxilotu zutenean. Arabako Ikastolen Federazioak Endika Zinkunegiri babes eman dio eta lehenbailehen osatzea espero du.

## Ika-mika !!

**O**tsailean hire etxean mozio bat sartu genian, hilabeteko azken asteartean egin ohi den plenoan eztabaidatu zedin. Bertan, besteak beste, Usurbilgo Udala errausketaren aurka zegoela adieraztea eskatzen genian. Ez bakarrik Zubietan eraiki nahi dutenaren aurka, beste nonbait eraikiko litekenaren aurka ere bai. Baina huts egin zenigun, ez dakigu zein arrazoi medio, otsailean ez zenuen plenorik egin. Martxoan gutxienez irakurri dik esan genian, eta zain geratu gintuan. Baina azken astearta pasa duk eta oraingoan ere ez huen ohiko plenorik egin, egun bat beranduago pleno berezia baizik. Eta noski hor ere errausketaren aurkako mozioa gai ordenetik kanpo. Beste aukera on bat galdua gehiengoari kasu egin eta arduraz jokatzeko.

Erabaki garrantzitsuak hartu behar zenituztela esan dezakek jokaera hori azaltzeko. Baina, onartu zenituzten erabakietan sartu gabe (hobe horrela), ba al dik Usurbilek momentu honetan errausketarena baino arazo larriagorik? Baliteke hi lasai egotea, baina gainontzeko usurbildarrok kezkatuta

## Horrela ez Luismai!

gaude, oso gainera. Ez al haiz konturatzen Gipuzkoako zabor guztiak erre eta airera botako duten zikinkerik kimiko guztiak eragingo dizkigun kalteaz. Ondorioak epe luze- ra ikusiko dizkiagula eta lasai habil, ezta? Mozioa ez onartzeko balio duen aitzakiarik ez zioz Luismai.

Ez etorri gero, zeozer egin dekela esanez. Egia dek bai, Uria eta Menendez delako abokatu zerbitzua kontratatu omen dek. Oso onak omen dituk, baina baita garestiak ere. Txingudiko errausketaren aurkako plataformakoek esana dakigu. 30.000 euro herritar arruntarentzat izugarri badek ere, horientzat gutxi dek, txosten labur bat idazteko akaso iritsiko dek, baina ez gehiagorako. Herritarren aurrean zerbaite egiten dekenaren usaina hartzen zioagu. Baina ez zegok gaizki, hala ere. Errausketaren aurka benetan egin nahi badek, orde, Zubietakoa bakarrik bada ere, beste zer edozer erakutsi beharko dek. Eskatu al dituk kontuak hire alderdian? Hitz egin al dek hire alderdiko Ingurumen diputatu Oiartiderek? Alderdia uzteko prest al

hago usurbildarren nahia betetzeagatik? Zer arazo dek mozioan eskatzen genian bigarren puntua onartzeko? Hau bai bidea, Luismai!

Usurbildarren gehiengoaren iritzia entzun eta gero erabaki omen dek abokatuak kontratatzea. Baina hiri zeinek esan dik Usurbildarren nahia soilik Zubietako erraus- te plantaren aurka dagoela? Urtarrileko manifestazioan kalera irten zen jende pilo- a, Zubietako erraus- te plantaren aurka egoteaz gain, errausketa beraren aurka zegoan. Usurbildarren moral- a hirea baino zentzuz- koagoa denez, hori pentsatu nahi diagu, behintzat. Izan ere, nola ulertu, txarra dela- koan hiretzat nahi ez dekena, besteentzat nahi izatea? Usurbilen ez, Andoainen bai, ezta? Aitortzak behingoz! Dena dela, jakiteko modurik onena jende- ari galdetzea dek. Hain zuzen mozioan aurke- zen genian bosgarren puntuak hori bera es- katzen zian. Eta hori dek maiatzaren 27an egingo diaguna, eta hire laguntzarekin bada hobe.

TXOKOALDE

IÑAKI LABAKA

## Atsedena nagusi



**N**ahiz eta udaberrian sartuta izan, eguraldi aldetik ez diogu traza handirik hartu. Egun dexente jarraian pasa ditugu euritan eten gabe eta ura asko bota du. Ondorioz bizpahiru egunetan ibaia nahiko hazita izan dugu, hala ere ez da bere bidetik atera eta ez du gainezka egin. Larriago ibili dira Nafarroaldean, urak lur zati zabalak tapatu ditu zoritxarrez.

Aste Santuak pasa berriak ditugu eta askok oporrak aprobetxatuko zituen kanpora joateko, batzuk mendialdera, besteak berriz kostaldera. Herrian nabarmena izaten da asteen isiltasuna eta jendearen hutsunea, kalean zenbait ordutan ez da ia inor ikusten. Auzoan urte osoan bezala igarotzen dira, betiko jendea kalean gutxi gora behera. Akaso ez ohiko bisitariren bat baino gehiago agertzen zaigu, batik batik batataluniarrak, non jan edo non lo egin galdezka.

Amaitzeko sagardoaleek orain dituzte azken egunak txotx garaiak gozatzeko. Gure txokoan ezagutu dugu duela urte dexente, jende andana sagardoa dastatzera autobusetan etortzen, kabitu ezinik, txokoko bazter guztiak betetzen eta jendea aste bukaeretako gaueetan oihu eta bulla galantak ateratzen. Gure lasaitasunerako hori denak aspaldian bukatu ziren.

KALEBERRI

ANA URDANGARIN

## Animo Endika!



**D**enok dakigun bezala pasa diren azken egunetan hainbat atxiloketa egin dituzte Euskal Herrian, tartean gure herritarra den Endika Zinkunegi izan dugu. Pasa den asteko astelehenean askatu zuten zorionez. Hala ere, pasatako guztiak pasata, gainontzeko guztiak kartzelaratuak izan dira. Guztiak salatu dituzte tratu txarrak berriro ere! Horrela jarraitu behar al dugu beti? Izan ere hori mormala izango da batzuentzat ez?

Ez da erraza izango momentu horietan gogor eustea baina hemendik denei besarkada haundi bat bidaltzen diet. Gure herria beti astintzen jarraitzen dute inolako eskrupulorik gabe. Noizbait bukatuko al da hau?

Orain hauteskundeak ditugu eta esperoan gaude zer geratuko den! Orduan eh izango ditugu ixtoriak!

Tartetxo hau aprobetxatuz herriko preso guztiei elkartasuna eskeini nahiko nieke eta beren familiei baita ere, beraiek baitira azken finean guzti hori purgatzeko dutenak!

Euskal Presoak Etxera! Animo berezia Endika eta bere familiari bidali nahiko nieke. Eutsi goiari!

KALEZAR

ALOÑA PULIDO

## Elkarte berria



**O**raingoan gai berri batekin natorkizue: Peña Pagola Elkarte berria. Udalak elkarte berria egiteko baimena eta laguntza eman du izan ere elkarte zaharra nahiko txikia gelditu da eta zenbait aldaketa egiteko aukerarik ez baitu ematen. Elkarte berria zaharraren ondoan egongo da, egia esan oso gertu eta oraingoaren moduan auzoaren erdian egongo da kokatuta. Portale ondoan dagoen txabola txikitik gertu kokatuko da elkarte berria eta 120m koadro izango ditu.

Hau dela eta Kalezarreko jendea animatu nahi nuke elkarte berri honetan parte hartzera, batez ere jende gaztea, auzora azkenaldian jende berri asko etorri baita eta horien artean gazte ugari baitago.

Kalezarreko elkarte 1969. urtean sortu zen eta garai hartan auzoan bazen beste taberna-denda bat. Orain aldiz, auzoan Elkarte bakarrak daukagu eta beraz, esan daiteke Kalezarren Elkarteak ez duela soilik elkarte funtzioa betetzen. Auzoan taberna edo beste kafetegirik ez dagoenez, esan baitaiteke elkarte dela auzotarren bilgunea.

ATXEGALDE

IONE EIZMENDI

## Bada zer egina

**U**daberrian sartu orduko bagoaz ziztu bizian, eta dagoeneko apirilaren erdira iristear gaude. Ordu aldaketa dela, Aste Santuko oporrak direla... konturatzerako udan eta jaietan gaude. Jaiak aipatzean, gure auzokoak berreskuratzeko bilerak egiten hasiak dira. Ea gogoz eta denon parte-hartzearekin zerbait egiten den.

Aste Santuko egunetan, berriz, bakoitzak aukeratuko zuen nora joan edo zer egin: elurretara, itsas ertzera, elizkizun edo prozesioak ikustera, atsedena hartu egun horiek aprobetxatuz... Mendi irteera ugari ere antolatu ohi da egun horietan. Usurbilen, adibidez, 25. aldia da Ostegun Santu egunez Arantzazura oinez joateko ohiturari jarraitzen zaiona, inguruko herrietakoek ere parte hartzen dutelarik.

Mendiari buruz ari naizenez, Andatza mendi taldeak antolatzen duen Usurbilgo ibilaldia hilaren 22an izango da seguruenik. Entrenatu nahi duena, beraz, jakinaren gainean dago.

SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

## Korrika gure artean



Nori ez dio zirrara berezirik sortzen korrikak? Nik behintzat aitortu behar dut hunkituta egin nituela metro batzuk seme-alabekin. Egia esateko momentu ezin hobean pasa zen: ordu egokia, larunbata, euririk ez... eta ilunpetan.

Baina zertarako pasatzen da Korrika? Jende askok parte hartzen du jai honetan: helduak, haurrak, euskaraz dakigunak, euskaraz ez dakitenak, ikasten ari direnak... eta guzti honek zer pentsatua eman dit. Nere analisisian Artzerekin topatu naiz, (askotan bezala) alegia, euskararen etorkizuna, euskaraz dakigunaren eskuetan dagoela eta oso ondo gelditzen dela esatea beste norbaiten erruz, erdaraz egin behar dugula, errespetoa eta... Eta baita ere oso ondo gelditzen da esatea Korrikan parte hartu dugula eta euskararen alde zerbait egin dugula.

Horrelakoak asko daude eta badakite benetako korrika eguneroko hasten dela, etxetik hasita eta edozein lekutan: lanean, tabernan, kalean, dendetan... Euskararen lekukoa denen esku dago eta baita euskararekiko konpromisoa ere, norberak eman behar ditu urratsak egoera batzuk aldatzeko eta Korrikak hori egiten laguntzen digu. Beraz, heldu indarren lekukoa, atera kalera eta segi korrika. Santuenean ere euskararen alde!

URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

## Denetik zerbait



Aste santuak pasa berriak ditugu. Agu dagoeneko eta niri behintzat konturatu ere egin gabe igaro zaizkit opor egun hauek. Batzuek eguneroko errutinatik alde egiteko aitzakian, kanpora joateko aprobetxatu dituzte opor egunak eta beste hainbatek, herria eta inguruetan igaro dituzte iragan diren egunak.

Hil hau atzean utzi eta ate joka etorriko zaigu maiatza eta konturatzerako sagardo-eguna eta uda ere gainean izango ditugu. San Esteban alde honetan dagoeneko abuztuko jaiak antolatzeke asmoz bilerak egiten hasiak gara. Festa egunak gutxi badira ere, aurretik egin beharreko lana handia da. Horretarako, ongi antolatzea eta lanerako motibatuak eta gogoz egotea beharrezkoa da.

Aurten gainera, gazte talde bat bildu da Atxegaldeko festak antolatzeke asmoarekin. Garai bateko Atxegaldeko festak berreskuratzea da helburua eta benetan inizatiba interesgarria dela deritzot. Auzoetako festek badute beren xarma, beraz, hemendik animo eta jarraitu aurrera zuen lanean.

AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

## Zorionak, Antxomolantxa

San Praixku jaietako egun bat ospatzen Sari ginela ematen zuen joan den martxoaren 24an. Arratsaldean "Kutsidazu bidea, Ixabel" luzemetraia eskaini zuten, ondoren, herri-kirolak jokatu ziren gazteen artean frontoian. Eta -nola ez?- bukaeran parrila bete kostila nahiko gazta eta menbrilorekin, dena eztarriko zulotik pasarazteko sagardo puska batekin.

Festa hau ospatzeko arrazoia zera izan da: AEKK bi urte-tik behin antolatzen duen Korrika-ren esperoan geundela. Gaueko hamarrak aldean iritsi zitzaigun lekukoa Aginagara, eta Usurbilgo jendearen eskutik hartu genuen. Lehenbiziko tramoan Aginagako korrikalari eleganteenak egin zuen lekukoarekin, Benito Aranburuk.

Ondoren Oskar Santamaria eta Karmele Bengoetxeak hartu zuten Korrikaren ikurra. Horiekin batera aginagatar mordoxka ederrak egin zituen kilometroak eta Intxaurretan oriotarrei eman zieten ikurra, ibilaldiak gero Zarautz alde-ara jarraitu zezan.

Guztia gidatzeko lana Antxomolantxa elkartearen esku egon zen. Benetan eskertzekoa da herriari bizia emateko ahaleginetan elkarrekin honetako jendea egiten ari den lana.



ZUBIETA

PELLO ARANBURU

## Etxe guztietan laratza beltza

Administrazioan aritzea lan gogorra eta neko-Asoa da, ez dut dudarik, eta gainera galtza bete lan dute. Baina administrazioak indarra, ahala, boterea du bere esku, eta askotan eskua luze-egia. Horren adibide Abadiñoko Lebario auzoko baserri bat -Usurbilgo Zubietako baserri bat izan zitekeen bezala- desjabetzeko modua.

Desjabetzea onura publikoaren arrazoiengatik egin da: Euskotrenek geltokia behar du.

Baserrikoiei ez kezkatzeko esan zieten, administrazioa eskuzabala izango zela. Gero adostasunik lortu ez eta baserri koskorren truke 35 milioi (pezeta) emango dizkiete. Etxeko jaun-andreak -80 urte inguru- etxean itxi dira, ertzainak agertu direnean.

Administrazioko bozeramaleak esan du dena legez egin dutela -eta segur aski onura publikoarena ere aipatuko zuen-, dena behar bezala. Denok dakigu herri honetan legezkoa eta bidezkoa ez dela gauza bera... Eta bihotza urratzeko moduan aritu zen baserriko jauna telebistan: etxebizitza koskor bat pagatzeko lain, besterik ez diegu eskatu.

Ez dakit Zubietak administrazioarekin dituen arazoetan zenbaterainokoa den bakoitzaren arrazoia erraustegia dela, presondegia dela, etxegintza dela... Baina ziur nago haren interesak ez direla bertakoena. Askotan interes horiek ez dira oso legezkoak, eta are gutxiago bidezkoak.



# Hondakinen Kontsortzioa sortzeko hitzarmena errekurritua izango da

**F**oru Aldundiak, Donostiako Udalak eta Txingudikoa ez beste Mankomunitateek Hondakinen Kontsortzioa sortzeko hitzarmena sinatu zuten duela aste batzuk. Zaborra tratatzeko aurrekusiak dauden azpiegiturak kudeatu eta ustiatuko lituzke. Martxoaren 29an, prentsaurrekoan, Usurbil, Lasarte-Oria eta Zubietako herritar talde batek aipatutako erabakia errekurrituko duela iragarri zuen.

Donostiako Udalaren erabakia bertan behera uztea, prozeduraren urraketa eta Aldundiaren aginpiderik eza adieraztea eta hondakinen inguruko plan sektoriala idazteko hiritarrek duten eskubidea onartzea eskatzen dute. Hain zuzen, aipatutako plan horren testuinguruan kokatzen dute alternatibak aztertu, horiei buruzko iritzia eman eta irizpide teknikoak baliatuta azpiegiturak eta horien kokapenak arrazoitzeko irtenbidea.

## HIRI HONDAKINEN ARAZOA

San Markosera garraiatu beharreko hondakin kopurua Gipuzkoako beste gune batzuetan biltegitratzen ari dira

Erabaki politiko oportunisten aurrean gaudela adierazi zuten. Aldundiaren egoskorkeri itsua tarteko, erraustegiaz gain dauden alternatibak eta osasunarentzat ekar ditzakeen arriskuak ez dituztela aztertu nahi gogorarazi zuten. Zubietako erraustegia inposatzeko Kontsortzioa baliatu nahi dutela salatu zuten.

Haien esanetan, aipatutako erakundeek ez dute aginpiderik hondakinak tratatzeko sistema gisa, errausketa bultzatu ezta horren kokapena erabakitzeko ere. Kasu horretan, Jaurlaritzari dagokiola sistemak homogeneizatu eta azpiegituren kokapen-irizpideak definitzeko



USURBIL, ZUBIETA ETA LASARTE-ORIAKO HERRITAR TALDE BATEK MARTXOAREN 29AN ESKAINI ZUEN PRENTSAURREKOKO IRUDIA.

ardura.

Bestalde, Donostiako Udalak hartutako erabakia nulutzat jo zuten. Eguneko gai zerrendan ez egoteaz gain, premiazkoa izatea ez zegoela akreditatua aipatu zuten. Kontsortzioa sortzeko hitzarmena plenoa baino hilabete beranduago adostu baitzen. Ondorioz, zinegotzi eta herritarrek gai publikoetan parte hartzeko duten eskubidea urratu zutela aipatu zuten; baita, oro har, ingurumen gaietan parte hartzeko eskubidea ere. Horrelako neurriek etorkizunean erabaki egokiagoak hartzea zailtzen duela gaineratu zuten.

### Ezin itxaron 2009ra arte

Dagoeneko, San Markosera garraiatu beharreko hondakin kopurua Gipuzkoako beste gune batzuetan biltegitratzen ari dira. Prentsaurrekoan adierazi zuten, neurri horrek hondakinen arazoa atzeratu besterik ez du egiten.

2009ko uztailaren 19tik aurrera zer gertatuko den galdetzen zuten. Luis Mari Oiarbidek horren erantzunik ez zuela eta, Europa mailan ontzat jotzen diren eta errausketaren aurrean hartu daitezkeen zenbait neurri proposatu zituzten; zaborrak gutxitu eta ondorioz,

zabortegien behar txikiagoa izatea. Horri lotutako kanpaina masiboak egin eta egungo legeria egokitu beharraz jardun zuten. Birziklatzea maximizatu eta etxeetako materia organiko guztia bere barne jasoko lukeen bilketa selektiboa bultzatzea. Eta zaborra jaso den lekutik ahalik eta gertuen tratatzea, konpostajea bultzatuz.

Metodo horiek gauzatzeko errazagoa eta ekonomikoagoa delako, hori guztia abian jartzeko 2009. urtera arte ezin dela itxaron adierazi zuten. Horien aldeko apustua egitea orain erabakita, ordurako alternatibak Gipuzkoa osoan abian leudeke, herritar taldearen esanetan. Baina borondate politikoa behar dela gogorazi zuten. Alde horretatik, herritar taldearen iritziz, auzia bi modutan argitu daiteke; hondakinak ondo bilduta edota etorkizuna hipotekatuko duen azpiegitura erraldoi eta arazotsuetan inbertituta. Egoera argi dezakeen datu baten berri eman zuten: materia organikoa birziklatuta, tratamendu horretatik kanpo geldituko litzatekeen hondakin kopurua egungo %70-eko tasatik %25 baino gutxiagoa jaitsiko litzateke.



## Hautes-elkartea sortzeko sinadurak biltzen hasi da Ezker Abertzalea

**H**autes-elkartea sortzeko sinadurak biltzen hasi zen astelehenean Usurbilgo Ezker Abertzalea. Sinadura emateko baldintzak hauek dira: adinez nagusia izatea, Usurbilen erroldatua egotea eta nortasun agiria edo pasaportearen erakustea. Udaletzeko idazkaritzara jo behar da, goizez, eta sinadura emateko azken eguna apirilaren 20a izango da.

Hemen bezala, gainontzeko herrietan ere hauteskunde elkarten bidez aurkezteko ahalegina egingo du Ezker Abertzaleak, eta, horretarako, sinadura biltzen hasi dira. Prentsan azaldu denez, Abertzaleak eta Sozialistak izena hartuko dute hautagaitzek, aurretik herrialdearen edo herriaren izena jarrita. Berrehundik gora zerrenda aurkezteko asmoa dute.

Sinaduren babesa behar dute hautes-



APIRILAREN 20AN AMAITUKO DA SINADURA EMATEKO EPEA.

elkarrekin. Usurbilen, astelehenean hasi zen sinadura emateko epea eta hilaren 20an bukatuko da.

Lehen esan bezala, udaletxean eman behar da sinadura. Eta baldintzak, hauek: adinez nagusia izatea, hautesle elkartearen aurkezteko den herriaren erroldatua egotea eta nortasun agiria edo pasaportearen erakustea.

## Lanbide Eskola, Kursalen egin den Eduka azokan

**M**artxoaren 22an eta 23an, Eduka azoka ospatu zen Kursalen. Ikastetxe, lanbide eskola eta unibertsitate ugari bildu zen bilkura honetan. Tartean izan zen Usurbilgo Lanbide Eskola. Bere eskaintzaren berri eman zuen eta 2007/2008 ikasturterako eskaintzak bisitari askoren arreta bereganatu zuen.



## Apirilaren 25etik aurrera, sorosle eta sorospen ikastaro berri bat eskainiko du DYAk

**A**pirilaren 25ean, Usurbilen Sorosle eta Lehen Sorospen ikastaro berri bati hasiera emango dio DYA Gipuzkoak, biztanlego osoari irekia egongo delarik.

Egunerokotasunean aurki ditzakegun arrisku egoerei nola erantzun ikasteko aukera eskaini nahi digu DYAk. Bihotz eta birika susperketa, zauriak, hausdurak, erredurak... Ezagupen oso arruntak baina oso lagungarri izan daitezkeenak. Modu eroso eta atseginean erakutsiko dira eta teoria eta praktika uztartuko dituzte ikastaro honetan. Eta ez pentsa, ez da beharrezkoa aldeztu aurretik ezagupenik izatea.

Ikastaroaren iraupena hiru astekoa izango da. Apirilaren 25ean hasi eta maiatzaren 17an amaituko da. Asteleheneetik ostiralera, arratsaldeko 19:30etik 21:30era. Bestalde, ikastaro amaierako frogak gainditzen dituenak, DYA Gipuzkoak eskaintzen duen sorosle titulua eskuratzeko aukera izango du.

Ikastaro hau gainditzen duenak, gainera, EHUra bi kreditu jasotzeko aukera izango du.

Matrikularen prezioa, ikastarorako txostena barne dela, 75 eurokoa da. Ikastaroaren kalitatea bermatu arren, ikasle kopurua mugatua izango da. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, 943 46 46 22 telefono zenbakia duzue eskura.



TEORIA ETA PRAKTIKA LANDUKO DIRA DYAK ESKAINIKO DUEN IKASTAROAN.

## Puntako kultur astea antolatu du Jexux Artze Kultur Elkarteak

**J**jexux Artze Kultur Elkarteak prest du jada, maiatzera begira urtero antolatzen duen ekitaldi sorta. Gonbidatuen artean, Peio eta Pantxoa hainbat musikarirekin; Artzeren lagun handi bat, Mixel Etxekopare, Nömadak Tx-eko protagonistak eta Ane Albisu ikerlarria.

Maiatzeko lehen hamabostaldirako programatu ditu Jexux Artze Kultur Elkarteak antolatu dituen ekitaldiak. Kontzertu, kale animazio, film emanaldi eta hitzaldi banak osatzen dute egitea.

Pantxoa eta Peio, nobedadeekin, Kiroldegian izango dira maiatzaren 5ean. Taula gainean biak ikustera ohitura gauden arren, oraingo honetan, ez dira bakarrik etorriko. “Azken diskoa zazpi musikariren laguntzarekin kalerratu dute. Oso kontzertu aberatsa izango da. Garai bateko jarraitzaileei eta gazteei bertara joateko dei egin nahi genieke”, adierazi du kultur elkarteako kide Joxe Ramon Furundarenak.

### JOXE RAMON FURUNDARENA

“Garai bateko jarraitzaileei eta gazteei Pantxoa eta Peioren kontzertura joateko dei egin nahi genieke”

Antolatzaileek Iparraldea gustuko dute. Horren adierazgarri, egun berean arratsalde partean izango den ekitaldia. Jexux Artze zenaren lagun handi Mixel Etxekoparek sortutako “Oiherkoren Txaranga” herriko kaleak alaitzen ikusiko dugu.

### Durangora begira

Durangoko azoka izaten da haien erreferentzia. “Hura pasa arte zain egoten gara diska erakargarrienak ikusteko”, adierazi du Furundarenak.



MAIATZEKO LEHEN HAMABOSTALDIAN OSPATUKO DIRA ELKARTEKO KIDEEK ANTOLATU DITUZTEN EMANALDIAK.

Txalaparta munduarekin lotutako zerbait argitaratzen badute, are gehiago. Hala, azken Diska eta Liburu Azokan izan zuten Nömadak Tx filmaren berri. Emanaldi bikoitza eskainiko dute. Gaiari buruzko solasaldia ere izango da, filmeko protagonistek, Harkaitz Martinez de San Vicentek eta Igor Otxoak, txalaparta jotzeaz gain. Protagonistei galderak egiteko aukera ere izango da.

Iaz euskal jantziei buruz kaleratutako liburu baten haritik dator Jexux Artze K.E-ren azken proposamena. Aditua gai horretan, euskal jantzien nondik norakoak irudi bidez azaltzeaz gain, taula gainean bere jantziak jendaurrean erakutsiko ditu. Interes handia piztu izan duen ekitaldia da.

ARITZ GORRITI

## Ez Dok Amairu erakusketa Bilbon

**E**uskaltzaindiak Bilboko Alde Zaharreko Plaza Berrian duen egoitzan ikusgai jarri dute Jexux Artze taldeak 2003an Usurbilen eta berriki Urnietan zabalduko Ez Dok Amairu buruzko erakusketa.

Hedabideen artean oihartzun handia izan duen ekimenean, kultur mugimenduaren eboluzioa ikusi ahal da, hainbat argazki, dokumentu edota musikaz lagunduta. “Egun pasa egiteko aukera polita da”, adierazi du Furundarenak.

Erakusketako tarte berezia eskainiko zaie Jexux Artzeri eta Lurdes

Iriondori. Iñaki Eizagirre usurbildarra aritu da muntaia lanetan.

Usurbilen sortutako taldearen helburua, erakusketa Euskal Herrian zabaltzea izan da. Helburua betetzen ari da, dagoeneko informazio eskaera asko jaso baitituzte. “Agurain, Otxandio, Getxo, Arrasate, Elgoibar, Zaldibia, Amorebieta, eta Donostiako Koldo Mitxelena”, zehaztu du Furundarenak.

Apirilaren 27ra arte zabalik izango da erakusketa. Ordutegia: 10:00-14:00/16:00-20:00. Larunbatetan: 10:00-14:00. Sarrera doan.

## Aurtengo kultur eskaintza !

### Nömadak Tx filmean, txalaparta elkargune

Planetako bazter ezkutuenetan soinu eta ahots bila ibili dira Harkaitz Martinez de San Vicente eta Igor Otxoa musikariak. Txalaparta pertsona eta kulturen

elkargune bihurtzeko egindako ahalegina kontatu eta erakusten da Raul de la Fuentek zuzendutako Nömadak Tx filmean.

Maiatzak 4, 19:30/  
22:30 Sutegin. Doan.



FILMAREN PASE BIKOITZA IZANGO DA. GAUEKOAN, TXALAPARTARIEN EMANALDI ETA SOLASALDIAREKIN.

### Pantxoa eta Peio, euskal kantagintzaren bikotea

Peio eta Pantxoak "Lurra eta maitasuna" izeneko azken lana taularatuko dute Kiroldagian. Doinu gozo eta mezu iraunkorretan zipriztinduko gaituzten

hamabi abesti berri. Ordu eta erdiko emanaldia primerako musikarien laguntzarekin; tartean, Mixel Ducau edo Igor Telletxea. Maiatzak 5, 22:30ean kiroldagian.



SARRERAK 10 EUROTAN SALGAI LIZARDIN, MAHUKAN ETA DONOSTIAKO ELKAR MEGADENDAN.

### "Oiherkoren Txarangak", kaleak animatzeko ikuskizuna

Iaz, "Oiherkoren Trajeria" izeneko pastoralarekin hasi ziren. Orain, xirula eta perkusioa baliatuta, doinu zaharrek berriekin tartekatuta datoz Zuberoatik

"Oiherkoren Txaranga" txikia. Aipatutako herrialdeko garai bateko taupada bilatzen du. Herriko kaleak alaituko dizkigute.

Maiatzak 5, larunbata. Kalejiran, 18:00-20:30.



KALEAK ALAITU ETA GAUEKO KONTZERTU AURREKO ORDUAK ERE GIROTUKO DITUZTE.

### Euskal jantziei buruz hitz gingo du Ane Albisu adituak

Euskal jantzi tradizionalak ahotan hartuko ditu Ane Albisu ikerlari eta dantzari donostiarrak. "Atundu. XXI.menderako proposamena" idatzi zuen liburua

baliatuta, gaiaren nondik norakoak azalduko ditu. Gainera, jantzi errealak erakutsiko ditu jendaurrean.

Maiatzak 11, 19:30ean Sutegin. Doan.



EUSKAL JANTZIEI BURUZ JAKINMINA DUENAK, SUTEGIKO SOLASALDIAN AUKERA APARTA IZANGO DU.

## Ana Ilarramendi eta Lurdes Azkune, azken mihiluzeak

U surbildarren presentziak ez du etenik denboraldi honetan hain ezaguna egin den "Mihiluze" Euskal Telebistako lehiaketan. Xabier Linazisoro eta Erramun Erro izan ziren lehenengoak, Miren Zarautz Ibarako Alex Arozenarekin batera gero. Azken asteetan ikusi ahal izan ditugu, momentuz,

euskararekin jolasean aritu diren azken mihiluze usurbildarrak; Ana Ilarramendi eta Lurdes Azkune. Beste behin, herritarrek erakutsitako maila agerian geratu da. Lau saiotan parte hartu dute eta bilduta zegoen dirua, kopuru handia, irabaztear ere izan ziren finaletako batean. 590 euro eskuratuta etxeratu dira. Zorionak bio!



LURDES AZKUNE.



ANA ILLARRAMENDI.

## Kultur arloko dirulaguntzak eskatzeko garaia da

2007ko Kulturako Dirulaguntzen Oinarriak jada argitaratu dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, beraz, dirulaguntza eskaera egin nahi dutenek apirilaren 23ra bitarteko epea izango dute. Dirulaguntza eskaera egiteko, udalak espreski argitaratu dituen inprimakia eta fitxak bete behar dira. Informazio gehiago, udaletxean, baina [www.noaua.com](http://www.noaua.com) webgunean ere eskura dituzu oinarriak eta aurkeztu beharreko fitxen inprimakiak.

## Argazki Lehiaketa antolatu dute Santuenean

Santuenea Kultur Elkarteak haur eta gaztetxoentzako II. Argazki Lehiaketa antolatu du. Lehiaketan 4-14 urte bitarteko haur eta gaztetxoek parte har dezakete. Lehiaketako oinarriak apirilako lehen astean argitaratuko dira. Gaia, "udaberria" izango da eta argazkiak apirilaren 27a baino lehenago eraman behar dira Santuenea Kultur Elkartera.

Informazio gehiagorako deitu telefono honetara: 943 37 15 35.

**J.ORBEGOZO**  
ITURGINTZA · GASA · BEROKUNTZA  
BIZKARRA 1, 1.ESK. 943372937 · 659602789

Zuen publizitatea hemen

☎ 943 360 321  
[publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com)

**LATAILLADE** ITURGINTZA  
GASA  
BEROKUNTZA  
MANTENIMENDUA ETA  
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK  
Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13  
Olindegia - Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**Patri Jatetxea**



K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

## Txotxongiloetaz gozatzeko aukera aparta izango dugu igandean

**I**zenak dioen bezala, Titirikontu-kontari ikuskizunean txotxongiloak dira protagonistak. 3 urtetik gorako haurrentzat egokia den saio hau Sutegiko auditorioan egingo da, arratsaldeko 17:30ean.

Lan honetan hainbat ipuin kontariren ahotsak uztartzen dira. Pertsonaiak ugariak eta dibertigarriak dira, tartean da Txinako enperadore bat, esaterako.

**Gorakada konpainiaren lana**  
Gorakada konpainia Durangon sortu zen 1987an, hainbat gazteren zaletasunaren ondorio. Gazte horiek Julio Perugorria zuzendariaren antzerki eskolako Batxilergo Institutuan eta Geroa Antzerkiaren Udal Taierrean hartu zuten parte aurretik.

Ordutik, txotxongiloak egiteaz aparte, hainbat ikuskizun eskaini dituzte. Igandean Sutegin izango ditugu.

Sarrerak, aldeztu aurretik, 2 eurotan izango dira salgai Oiardo kiroldegian. Egunean bertan eta takilan, 3 euro.



TXINAKO ENPERADORE BATEN GORABEHERAK KONTATUKO DIZKIGUTE.

Usurbilgo Udalak antolatu du txotxongilo saioa.

### Apirilaren 23an, ipuin kontalaria udal liburutegian

Apirilaren 2an ospatu zen Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna. Apirilaren 23an, aldiz, Liburuaren Nazioarteko Eguna. Udal liburutegian ipuin kontalari baten bisita jasoko dugu egun horretan. Amaia Zinkunegi ipuin kontalaria arituko da eta 6-7 urteko umeei zuzendutako saioa eskainiko du. Sarrera doan izango da.

### Oporrak

#### gutxitasun fisikoa duten pertsonentzat

**G**ipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten pertsonak biltzen dira Elkartu erakundearen, Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamendua laguntzaile zuela. Orain, oporraldi programa jarri dute martxan. 16 urtetik gorako gutxitasun fisiko, organiko eta sentzoriala duten pertsonak har dezakete parte. Informazio gehiago, Udal Gizarte Zerbitzuetan. Baina kontuan izan eskabideak aurkezteko epea apirilaren 15ean amaituko dela.

### Rwandari buruzko hitzaldia Sutegin

**R**wandako Giharanen, edateko uraren hornikuntza-sistemarik ez zen. Duela gutxi berreskuratu dute, besteak beste, Usurbilgo Udalak garapen proiekturako eman zuen diruari esker. Elizbarrutiko misio ordezkari Inma Muguerza Rwanda izan zen proiektu hau sustatzen. Datorren astean, hilak 19 osteguna, Sutegin izango da proiektu honetaz eta Rwandan bizi den gerra-giroaz hitzetan. Hitzaldia 19:00etan izango da, Sutegiko auditorioan.

**ALDAMU**  
  
**KONPONKETAK**  
KALE NAGUSIA 10- atzekaldea  
943 372 795

**ERRAZKIN**  
Igeltseritza S.L.  
Tel.: 649 435 470  
Faxa: 943 372 679  
K./ Nagusia 47, Behea A.  
20170 USURBIL

teilatuak eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**  
  
Obaba kalea 29 - ASTEASU  
© 943 69 68 52 - 620 800 186

**MIKEL**  
**IZAGIRRE**  
ELEKTRIZITATEA  
943 365 095  
609 068 111  
GOIZ ARGI ETXEA, 37. KALEZAR

**ALIPROX**  
Kale Nagusia 10  
© 943 361 182  
USURBIL

  
**txirriStra**  
KONTSEJUZARRA 13  
943 360 466  
pintxoak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak  
**TABERNA**

## Hernalde eta Usurbil arteko ibilaldia antolatu du Andatza mendi taldeak

**E**rnioko tontorra paregabe ingurunean kokatuta dago eta bertatik gozatu daitekeen paisaia azpimarragarria da. Eguraldi onarekin Gipuzkoa erdialdeko ibarrak dira ikusgai, bertako baso eta zelaiekin batera. Ingurune hori ezagutzeko aukera paregabea eskaini nahi digu Andatza mendi taldeak, datorren apirilaren 22an.

Hernaldetik abiatu eta Usurbilen amaituko da mendi martxa. Tartean, Ernio, Iturriotz, Ernio Txiki, Aia, Estena-mendi eta Andatzako gainak egingo

dituzte. Zortzi orduko iraupena izango duen mendi martxa Usurbilen amaituko da.

Ez da alde zuzenetik izena eman behar. Egunean bertan, udaletxera azaldu eta kitto. Mendi martxaren amaieran, opariak banatzeko dituzte partehartzaile guztien artean.

### Ernioko gurutzeta

Badira 60 urte Ernioko gurutzeta eraiki zutela, eta geografikoki zortzi herri elkartzeko dituzte Asteasu, Alkiza, Larraul, Hernalde, Albiztur, Bidegoian, Aia eta Errezil.



ERNIOKOA IZANGO DA IGOKO DUTEN LEHEN MENDIA.

### Zortzi orduko ibilbidea izango da

**Eguna:** apirilaren 22an.

**Ibilbidea:** Andatzak antolatu duen mendi ibilaldiak Hernalde eta Usurbil lotuko ditu.

**Iraupena:** 7-8 ordukoa izango da iraupena.

**Araudia:**

- Irteera Usurbilgo udaletxetik, goizeko 7:00etan.


- Sendagile eta hornialdi zerbitzuak egongo dira ibilaldian zehar.

- Andatza K.K.E. ez da kargu egiten partaideak izan ditzaketen istripu edo kalteetaz.

- Eguraldi txarra edo bestelako arrazoiengatik irteera ezeztatzea antolatzaileen esku geratzen da.

- Bukaeran, parte hartzaileen guztien artean, opariak zozketatuko dira.

- Izen ematea egun berean egingo da.



## Igande honetan, Orio eta Usurbil arteko itsas-bazterra ezagutzeko aukera

**H**ernalde-Usurbil arteko mendi martxa Andatzak antolatu du eta apirilaren 22an egingo da. Astebete lehenago, ordea, beste ibilaldi eder bat ezagutzeko aukera izango dugu.

Igande honetan, hilak 15, Nafartarrak taldeak Orio eta Usurbil arteko mendi ibilaldia osatuko du,

honakoan, itsas-bazterretik zehar. Araba eta Agoitz aldeko jendeak hartuko du parte baina edonork har dezake parte, deialdia irekia dela alegia. Mendi martxa eta gero, sagardotegian egingo da bazkaria. Mendi martxa hau 9:30ean aterako da frontoi atzetik. Izen emateko, 665 746 158 telefono zenbakira deitu.



ORION HASI ETA USURBIL EN AMAITUKO DA IGANDE HONETAKO IBILALDIA.

## Hasi da Usurbilgo XXXV. Pilota Txapelketa

**M**artxoaren amaieran hasi zen XXXV. Usurbilgo Pilota Txapelketa. Aste Santu aurretik jokatu ziren lehenengo norgehiagokak eta hemendik aurrera, astebururo, hainbat pilota partida ikusteko aukera izango da herriko pilotalekuan Santixabelak bitartean. Andatzpe-Peña Pagola pilota elkarteak antolatutako txapelketa honetan Euskal Herri osoko pilotariek parte hartuko dute.

Jubenil eta nagusien mailako pilotariak izango dira aurtengo edizioko protagonista nagusiak. Aurreko bi urteetan 22 urtez azpikoen mailako ere antolatu izan dute, baina 35. edizio honetan aurrez aipatutako bi kategoriatan jokatu da herriko pilota txapelketa.

Aurten ere bikote kopurua mugatua izango da. Jubenil mailan 35 bikote izango dira eta nagusien mailan, berriz, 51, aurreko urteetan baino gehiago. Erabiliko den sistemari dagokionez, kanporaketa bidez erabakiko da nork egiten duen aurrera. Partida galtzen duen bikotea kanpoan geldituko da eta irabazleek, berriz, aurrera egingo dute. Norgehiagokak ostiral arratsaldetan eta larunbat eta igande goizetan jokatu dira. Azken urteetan larunbatetan arratsaldetan jokatu izan dira txapelketako pilota partidak, baina aurtengo edizioan goizeko 11.00etatik aurrera jokatu dira.

Aipatutako bi mailetan Euskal herri osoko pilotariak ikusteko aukera izango



IRUDIAN, IAZKO TXAPELKETAKO IRABAZLEAK.

dute herriko pilotalekura gerturatzeko. Pilotari gehienak gipuzkoarrak badira ere, nafarrak, bizkaitarrak, arabarrak eta iparraldekoak ere Usurbilgo Pilota txapelketan parte hartuko dute. Ohikoa den bezala, herriko pilotariak ere tartean dira. Jubenil mailan hiru usurbildar izango dira lehian. Imanol Esnaola eta Iker Zinkunegik elkarrekin jokatu dute eta Jon Esnalek Arretxe izango du bikotekide.

Nagusien mailan, berriz, Jabi Santxok Baztango Uharterekin jokatu du, Xabier Errasti aginagarrak iparraldeko Errekarekin, Asier Portuk Elizalde du bikotekide eta Enrique Huizik iaz irabazitako txapela eskuratzen saiatuko da Txapartegi asteasuarrarekin. Izan ere,

iazko edizioan herriko pilotariak izan ziren nagusi seniorren mailan. Huizik eta gaur egun profesional mailan jokatzen ari den Asier Arrutik irabazi zuten txapelketa Jabier Santxo usurbildarra eta Gutierrez urretxuarrak gaititu ostean.

Bestalde, Usurbilen bizi den Martin Alustiza segurarra Aspe enpresako intendente berria izango da laster. Profesional mailan 26 urte egin ondoren datozen asteetan hartu dezake erretiroa Martinek. Frontis espresarekin iraila arteko akordioa zuen, baina Aspe intendente izatea eskaini zion duela aste batzuk, eta eskaintza onartu eta pilotan jokatzeari utziko dio ziurrenik.

JOSU ARANBERRI

## Senior mailako taldeak Bergaran jokatu du

**D**atorren denboraldian Euskadiko txapelketa jokatu ahal izateko igotzerako fasea jokatzen ari den senior mailako taldeak Bergaran jokatu du asteburu honetan. Aste Santuko atsedendialdiaren ondoren sailkapenean beraiekin berdinduta dagoen taldearen aurka jokatu dute Labegarietako kiroldegian. Hiru jardunaldi jokatu ostean parekotasuna da nagusi igoera fase honetan. Bergara, Usurbil eta Gusla Urduliz sailkapenaren buruan dira bi garaipenekin eta multzoko beste hiru taldeek garaipen bana dute. Beraz, asteburu honetan punturen bat lortzea garrantzitsua izango da Antonio Castro eta Jose

Lorenzo Manzanoren taldearentzat. Bi taldeak ondo ezagutzen dira, Gipuzkoako txapelketan elkarren aurka jokatu baituzten. Bergaran jokatu duen neurketa 29-22 nagusitu ziren bergararrak eta Oiardon, berriz, usurbildarrek 27-20 irabazi zuten.

Bestalde, Usurbil Kirol Elkartearen jubenil mailako taldeak Gipuzkoako txapelketa eskuratu zuen duela bi aste. Oiardon Bergararen aurka jokatu zuten neurketan puntu bat eskuratzeko nahikoa zuten txapelketa bereganatzeko, baina badaezpada ere 31-24 irabazi eta jubenil mailan Gipuzkoako talde indartsuena direla erakutsi zuten.



### Eguneko goardiako farmaziak

**Apirilak 12, osteguna**  
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

**Apirilak 13, ostirala**  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Apirilak 14, larunbata**  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte  
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil

**Apirilak 15, igandea**  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Apirilak 16, astelehena**  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Apirilak 17, asteartea**  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Apirilak 18, asteazkena**  
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte

**Apirilak 19, osteguna**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Apirilak 20, ostirala**  
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

**Apirilak 21, larunbata**  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte  
Ituralde, Bordaberri 1 Usurbil

**Apirilak 22, igandea**  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
*J. Etxebeste Farmazia*  
Elkano 2 kalea, Hernani. 943 552087  
(gaueko guardia 22:00etatik 09:00ak arte)

2007ko egutegia noaua.com webgunean

### Zubieta-Donostia TST autobusak

**ASTEGUNETAN**  
Zubieta-Donostia  
7:55\* / 9:30(T) / 13:15(T)  
14:35\*(T) / 19:15(T)

**Donostia-Zubieta**  
(Gipuzkoa plazatik)  
7:15\* / 9:00 / 12:45(T)  
13:45\* / 18:45

**LARUNBATETAN**  
Zubieta-Donostia  
8:15(T) / 12:45  
15:15(T) / 21:35(T)

**Donostia-Zubieta**  
(Gipuzkoa plazatik)  
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

**JAI EGUNETAN**  
Zubieta-Donostia  
11:25(T) / 13:30(T)  
15:30(T) / 21:35 (T)

**Donostia-Zubieta**  
(Gipuzkoa plazatik)  
11:00(T) / 13:00(T)  
15:00(T) / 21:00 (T)

T: Autobus aldaketa beharrezkoa da  
\*: Eskola egunetan / Tf. 943 36 17 40

### KzGunea, apirilean

Apirilean goizez irekiko dute  
KzGunea, 9:00etatik 13:00era.

#### IT Txartela

IT txartela lortzeko azterketa egunak:  
Apirilak 16, apirilak 27 (11:00-13:00)

#### Ikastaroak

**Apirilak 12-13**  
Bat-bateko mezularitza, 11:00-13:00

#### Apirilak 19

Fagor Gida-gastronomikoa, 11:00-12:00.

#### Apirilak 19

Zure etxebizitza aurkitu, 12:00-13:00

#### Apirilak 25 (gaztekeraz)

Via Michelin-ekin bidaiatu, 11:00-12:00

#### Apirilak 25

Aseguru-etxea kontratatu, 12:00-13:00

Ikastaro guztietarako izen ematea:  
KzGunean (943 36 14 12).

ORDUTEGIA Tren								ORDUTEGIA Tren							
Donostia AMARA	Donostia LUGARITZ	Donostia ANORGA	Donostia ERREKALDE	USURBIL	Orio AIA	Zarautz SAN PELAIO	ZARAUTZ	ZARAUTZ	Zarautz SAN PELAIO	Orio AIA	USURBIL	Donostia ERREKALDE	Donostia ANORGA	Donostia LUGARITZ	Donostia AMARA
05.47	05.50	05.52	05.55	06.03	06.14	06.19	06.20	06.08	06.09	06.15	06.24	06.30	06.33	06.36	06.39
06.17	06.20	06.22	06.25	06.33	06.44	06.49	06.50	06.38	06.39	06.45	06.54	07.00	07.03	07.06	07.09
06.47	06.50	06.52	06.55	07.03	07.14	07.19	07.20	07.08	07.09	07.15	07.24	07.30	07.33	07.36	07.39
07.17	07.20	07.22	07.25	07.33	07.44	07.49	07.50	07.38	07.39	07.45	07.54	08.00	08.03	08.06	08.09
07.47	07.50	07.52	07.55	08.03	08.14	08.19	08.20	08.08	08.09	08.15	08.24	08.30	08.33	08.36	08.39
08.17	08.20	08.22	08.25	08.33	08.44	08.49	08.50	08.38	08.39	08.45	08.54	09.00	09.03	09.06	09.09
08.47	08.50	08.52	08.55	09.03	09.14	09.19	09.20	09.08	09.09	09.15	09.24	09.30	09.33	09.36	09.39
09.17	09.20	09.22	09.25	10.03	10.14	10.19	10.20	10.08	10.09	10.15	10.24	10.30	10.33	10.36	10.39
10.17	10.50	10.52	10.55	11.03	11.14	11.19	11.22	11.08	11.09	11.15	11.24	11.30	11.33	11.36	11.39
11.47	11.50	11.52	11.55	12.03	12.14	12.19	12.20	12.08	12.09	12.15	12.24	12.30	12.33	12.36	12.39
12.17	12.20	12.22	12.25	12.33	12.44	12.49	12.50	12.38	12.39	12.45	12.54	13.00	13.03	13.06	13.09
12.47	12.50	12.52	12.55	13.03	13.14	13.19	13.20	13.08	13.09	13.15	13.24	13.30	13.33	13.36	13.39
13.17	13.20	13.22	13.25	13.33	13.44	13.49	13.50	13.38	13.39	13.45	13.54	14.00	14.03	14.06	14.09
13.47	13.50	13.52	13.55	14.03	14.14	14.19	14.20	14.08	14.09	14.15	14.24	14.30	14.33	14.36	14.39
14.17	14.20	14.22	14.25	14.33	14.44	14.49	14.50	14.38	14.39	14.45	14.54	15.00	15.03	15.06	15.09
14.47	14.50	14.52	14.55	15.03	15.14	15.19	15.20	15.08	15.09	15.15	15.24	15.30	15.33	15.36	15.39
15.17	15.20	15.22	15.25	15.33	15.44	15.49	15.50	15.38	15.39	15.45	15.54	16.00	16.03	16.06	16.09
15.47	15.50	15.52	15.55	16.03	16.14	16.19	16.20	16.08	16.09	16.15	16.24	16.30	16.33	16.36	16.39
16.17	16.20	16.22	16.25	16.33	16.44	16.49	16.50	16.38	16.39	16.45	16.54	17.00	17.03	17.06	17.09
16.47	16.50	16.52	16.55	17.03	17.14	17.19	17.20	17.08	17.09	17.15	17.24	17.30	17.33	17.36	17.39
17.17	17.20	17.22	17.25	17.33	17.44	17.49	17.50	17.38	17.39	17.45	17.54	18.00	18.03	18.06	18.09
17.47	17.50	17.52	17.55	18.03	18.14	18.19	18.20	18.08	18.09	18.15	18.24	18.30	18.33	18.36	18.39
18.17	18.20	18.22	18.25	18.33	18.44	18.49	18.50	18.38	18.39	18.45	18.54	19.00	19.03	19.06	19.09
18.47	18.50	18.52	18.55	19.03	19.14	19.19	19.20	19.08	19.09	19.15	19.24	19.30	19.33	19.36	19.39
19.17	19.20	19.22	19.25	19.33	19.44	19.49	19.50	19.38	19.39	19.45	19.54	20.00	20.03	20.06	20.09
19.47	19.50	19.52	19.55	20.03	20.14	20.19	20.20	20.08	20.09	20.15	20.24	20.30	20.33	20.36	20.39
20.17	20.50	20.52	20.55	21.03	21.14	21.19	21.20	21.08	21.09	21.15	21.24	21.30	21.33	21.36	21.39
21.47	21.50	21.52	21.55	22.03	22.14	22.19	22.20	22.08	22.09	22.15	22.24	23.00	23.03	23.06	23.09
22.17	22.50	22.52	22.55	23.03	23.14	23.19	23.20	23.08	23.09	23.15	23.24	24.00	24.03	24.06	24.09
22.47	23.00	23.02	23.05	23.13	23.24	23.29	23.30	23.18	23.19	23.25	23.34	24.00	24.03	24.06	24.09

00.00 Astelehenetik Ostiraldera LANEGUNETAN 00.00 Astelehenetik Igandera eta JAETAN

00.00 Astelehenetik Ostiraldera LANEGUNETAN 00.00 Astelehenetik Igandera eta JAETAN



# Agenda !!

## Apirilak 15, igandea

- 17:30ean Sutegin, Titirikontu-kontari txotxongilo ikuskizuna. Sarrerak, alde zurretik, 2 euro, Oiardo kiroldegian. Takilan, 3 euro.

## Apirilak 19, osteguna

- 19:00etan Sutegin, "Rwanda, konponbiderik bai?" hitzaldia. Sarrera doan.

## Apirilak 20, ostirala

- 22:30ean Sutegin, Txuma Murugarrenen kontzertua. Sarrerak, alde zurretik, 8 euro kiroldegian. Takilan bertan, 10 euro.

## Apirilak 22, igandea

- Hernalde-Usurbil arteko mendi marxa. 7-8 ordukoa. Irteera, goizeko 7:00etan udaletxe zurretik. Antolatzailea: Andatza.

# Gizarte Zerbitzuen arloko dirulaguntza eskaerak egiteko epea ireki da

**D**agoeneko zabalik dago Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko dirulaguntza eskaera egiteko epea. Apirilaren 2an argitaratu zen GAO n eta maiatzaren 3an amaituko da epea.

Elkartek, bestelako erakundeek eta norbanakoek udalerrian gizarte zerbitzuen arloan egiten dituzten ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, dirulaguntza deialdia arautuko duten oinarriak argitaratu dira 2007. urtean zehar egingo diren jarduerak diruz laguntzeko.

Diru-laguntza hauen subjektu onuradunak honako hauek izan daitezke: Usurbilen gizarte zerbitzuen arloan ekimenak egiten dituzten pertsona juridiko zein fisi-

koak eta erakunde publikoak zein pribatuak, betiere, laguntza horien bidez erabilera publikoko edo gizarte intereseko jardueraren bat gauzatzeko asmoa badute edota helburu publikoren bat lortzeko lanean badihardute, eta, elkarteren egoitza Gipuzkoa Lurralde Historikoan egonik, zerbitzu hauen onuradunak usurbildarrak baldin badira. Usurbilgo udalerrian bere egoitza duten elkarteek dirulaguntzak lortu nahi badituzte, elkarteen udal-erregistroan inskribatuta egon behar dute.

Informazio gehiago udaleko Erregistro Nagusian nahiz Gizarte Zerbitzuko bulegoetan jaso daiteke.

ORDUTEGIA Autobus							
Astleheneretik Ostiralera LANEGUNETAN							
DONOSTIA	URBIL	USURBIL	ZARAUZ	ZARAUZ	USURBIL	URBIL	DONOSTIA
07:40	>>	08:05	08:25	06:45	07:05	>>>	07:30
08:10	>>	08:35		07:15	07:35	>>>	08:00
08:40	>>	09:05	09:25	07:45	08:05	>>>	08:30
09:10	09:30	09:35		08:15	08:35	>>>	09:00
09:40	>>	10:05	10:25	08:45	09:05	>>>	09:30
10:10	>>	11:05	11:25	09:10	09:45	10:10	
11:40	>>	12:05	12:25	09:45	10:05	>>>	10:30
12:10	12:30	12:35		10:10	10:45	11:10	
12:40	>>	13:05	13:25	10:45	11:05	>>>	11:30
13:10	13:30	13:35		11:15	12:05	>>>	12:30
13:40	>>	14:05	14:25	12:45	13:05	>>>	13:30
14:10	14:30	14:35		13:10	13:45	14:10	
14:40	>>	15:05	15:25	13:45	14:05	>>>	14:30
15:10	15:30	15:35		14:10	14:45	15:10	
15:40	>>	16:05	16:25	14:45	15:05	>>>	15:30
16:10	>>	17:05	17:25	15:10	15:45	16:10	
17:40	>>	18:05	18:25	15:45	16:05	>>>	16:30
18:10	18:30	18:35		16:10	16:45	17:10	
18:40	>>	19:05	19:25	16:45	17:05	>>>	17:30
19:10	19:30	19:35		17:15	18:05	>>>	18:30
19:40	>>	20:05	20:25	18:45	19:05	>>>	19:30
20:15	20:35	20:40	21:00	19:10	19:45	20:10	
21:00	21:20	21:25	21:45	19:45	20:05	>>>	20:30
22:15	22:35	22:40	23:05	20:15	21:05	21:10	21:30
				21:15	21:35	21:40	22:00

00.00 Aizoa jarraitzen du. 00.00 Aizatik dator

ORDUTEGIA Autobus							
Larunbat, Igande eta JAIEGUNETAN							
DONOSTIA	URBIL	USURBIL	ZARAUZ	ZARAUZ	USURBIL	URBIL	DONOSTIA
08:00	>>	08:25	08:45	06:45	07:05	07:10	07:30
09:00	>>	09:25	09:45	07:45	08:05	08:15	08:40
10:00	>>	10:25	10:45	08:45	09:05	09:15	09:40
11:00	>>	11:25	11:45	09:45	10:05	10:15	10:40
12:00	>>	12:25	12:45	10:45	11:05	11:10	11:40
13:00	>>	13:25	13:45	11:45	12:05	12:15	12:40
14:00	>>	14:25	14:45	12:45	13:05	13:15	13:40
15:00	>>	15:25	15:45	13:45	14:05	14:15	14:40
16:00	>>	16:25	16:45	14:45	15:05	15:15	15:40
17:00	>>	17:25	17:45	15:45	16:05	16:15	16:40
18:00	>>	18:25	18:45	16:45	17:05	17:15	17:40
19:00	>>	19:25	19:45	17:45	18:05	18:15	18:40
20:00	>>	20:25	20:45	18:45	19:05	19:15	19:40
21:00	>>	21:25	21:45	19:45	20:05	20:15	20:40
22:00	>>	22:25	22:45	20:45	21:05	21:15	21:40
22:30	>>	22:55	23:15	21:45	21:05	21:15	21:40

HEGUKO LARUNBAT JAIEGUNETAN

00.00	>>	00:25	00:45	23:15	23:35	>>>	00:00
02:00	>>	02:25	02:45	01:15	01:35	>>>	02:00
04:00	>>	04:25	04:45	03:15	03:35	>>>	04:00
06:00	>>	06:25	06:45	05:15	05:35	>>>	06:00

00.00 Larunbat lanegunetan bakarrik.

## ETXEBIZITZA

- Usurbilen pisu bat alokatu nahi dut. Presazkoa da. Deitu telefono honetara: 627285904.
- Bizkarre kalean pisua salgai: 2 komun, sukaldeta, sala, 3 gela, ganbara eta garajea. 48.000.000 pta. Interesatuak deitu 650938489 telefonora.
  - Usurbilen pisu bat alokairuan hartuko nuke. Tf: 630 032 779.

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Moto bat saltzeko, Richoo RR beltza, 49 cm3. 649 302 733 (David). Ondo zaindua, "extra" asko ditu.

## LANPOSTUAK

## Lan-eskaintzak

- Emakume edo neska euskaldun bat behar dugu ume bat zaintzeko. 678582665.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685 757 962.
- Kamarero edo kamarera euskaldun bat behar da Zumeta jatetxean. 943 36 27 13.
- Arratsaldez etxeko lanak egiteko emakume baten bila gabiltza 645 403 905.
- Galardiko gasolindegian oporrak ordezkatzeko langile bat behar dugu maiztaren amaieratik, urriaren erdialdera. Interesatuak bertan uz dezala curriculum argazkiarekin.

## Lan-eskaerak

- Pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 677343326
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak

egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906

- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Magisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635 209 193.
- Portalak eta eskaierak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617 242 660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jatetxe batean lan egiteko prest nago. 610 669 335.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620646769.
- Arratsaldetan lan egiteko mutil bat eskaintzen da. 664 774 024.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Pottoka salgai, kalifikatua eta subentzioa jasotzen ari dena. Tf: 626 220925.
- Egurrezko aulkiak salgai. Aritz egurrez eginkoak. 943 36 20 49.
- Salgai bixkientzako aulki bat, Red Castle markakoa, osagarri guztiakin: burbuja,

zakua... 943 36 07 54 (Ana).

- Gure loritoa martxoaren 7an desagertu zen, haize handiarekin beldurtu egin zen. Ikusten baduzu, mesedez, deitu: 656 734 413 (Ainara).
- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- "Enciclopedia general ilustrada del Pais Vasco" Auñamendi enziklopediaren 80 tomo dauzkat saltzeko prezio oso onean. 635733984.
- Benelli repetidora salgai 600 euro. Telefono zenbakia: 645 735750.
- Mercedes Vito Mixta 112CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa, aurreko eserlekuak birikariak, dena hornitua, ASR... 610431999.
- Faema markako lau besoko kafetera bat daukat salgai. 645708191.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.
- Bizirik edo jateko garbituta antxumeak salgai. Baita bertako babarrun beltza eta baserriko oilaskoak ere 664 774 024.
- Citroen Berlingo bat, kamara isotermikoduna salgai. 676 453 176.
- Snow egiteko tabla bat fizioekin salgai. 679 185 102.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. 617 242 660/ apore@euskalnet.net
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.

**Zorionak Kimetz!** Martxoaren 29an egin duzu urtebete eta etxekoak ez dugu ahaztu.



Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partez.

**Zorionak Eluxka,** Apirilaren 4an egin ditu bi urte gure etxeko panpinak. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partez. Koro.



## HILDAKOAK

**Jose Manuel Borda Zubeldia** Martxoaren 29an hil zen 97 urterekin. Kaleberri.



**Zirila Gardoki Erbiz** Apirilaren 9an hil zen 90 urterekin. Txokoalde.

**Zorionak Aitor!** Martxoaren 31n 2 urte bete zenituen eta bazkari ederra egin genuen hori ospatzeko. Muxu handi bat familia osoaren partez eta orain bezain alai jarrai dezazula!



## Oharra

Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenik orri honetan ikusi nahi baduzu, deitu eta datuak eman honako telefono zenbakian, 943 360 321, edo bestela, e-postaz bidali honako helbidera: [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com)

Datorren alea apirilaren 13an plazaratuko dugu. Informazioa bidaltzeko azken eguna: apirilak 9.

**MAHUKA**  
ETXEBESTE KALEA, 3- 943 361 106

Hemen aurkituko duzu gizon eta emakumezkoen **MODAKO ARROPA**

Industri eta iragarki **SERIGRAFIA** **TANPOGRAFIA**

**PSU**

943 371 954  
UGALDEA POL.36-2-USBIL

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
943 370 008

# DENOK apirilaren 4tik 22ra SINATZERA!

PROZESUAREN ETA HAUTESKUNDE DEMOKRATIKOEN ALDE

## GOIZEZ:

Usurbilgo Udaletxeko idazkaritzan.

Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00tara

## ARRATSALDEZ:

Lasarte-Oriako Notaritzan.

Mugako ibilbidea 1, 1 pisua, 4. atea (Urbarte), Lasarte-Oria.

Asteartea, Asteazkena eta Osteguna

17:00etatik 19:00tara

badator

euskal herri berria





# Usurbil, aurrera jarraitzeko bidEA

